

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2014-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den uztailaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuten Gipuzkoako lurralde historikoaren (GLH) 2014ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi eta Kabia) eta bere sozietate publikoen kontuek (IZFE, Bidegi eta ITTEN). Txostenari Osoko bilkurako kontseilari batek boto konkurritzailea jarri dio.

HKEEK **aldeko iritzia** plazaratu du **Gipuzkoako lurralde historikoaren Kontu Orokorraren** gainean eta unean uneko salbuespenak azpimarratu ditu. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFAREN Diruzaintza Geldikina 18,9 milioi euroan murriztuko luketenak. Gainera, HKEEK ezin egiaztatu izan du GFAREN Egoeraren balantzean jasotako ibilgetuko hainbat kontu-sailen kostua eta amortizazioa, horien xehapenik ez izateagatik.

Txostenak **Kontu Orokorraren finantza egoera aztertu** du eta azpimarratu du **zergen diru-bilketaren berroneratzea** tinkotu egin dela 2014an. Ordea, GFAREN **gastu arruntak** izan duen **igoera** handiak **emaitza arrunta nabarmen murriztea** eragin du. Inbertsio eragiketen egikaritzak behera egin du aurreko ekitaldiarekiko. **Zorpetzeak ere behera** egin du bai GFAN bai Bidegi, SAN.

Epaitegiak, berebat, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. GFAK Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Nagusiari igorri zion eta honek ez du salbuespenik adierazi.

Aldundiak, erakunde autonomoak eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek **zuzentasunez bete dute ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko araudia**, nahiz unean uneko hutsak azaleratu diren langileen, diru-laguntzen emakidaren eta administrazioko kontratazioaren ataletan.

Langileen atalean Txostenak ondorioztatu du 2014ko ekitaldiko bai GFAko langileen, bai Uliazpi eta hiru sozietate publikoetako langileen ordainsarien igoerak urratu egiten duela 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea. 2016ko urtarrilaren 12an Diputatuen Kontseiluak erabaki du okerbidez ordaindutako hartzekodunak itzularazteko prozedura abiaraztea, administrazioarekiko auzietako 1. epaitegiaren 2015eko irailaren 30eko epaia betearazteko. Bestetik, Bidegi, SAK langile finkoen bi kontratazio egin zituen berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana egiaztatu gabe, 2014ko urterako Gipuzkoako Aurrekontu Orokorren Foru Arauak langileak gehitzeari jarritako muga urratuz.

Administrazioko kontratazioari dagokionez akatsak azaleratu dira hiru ataletan: 10 kontraturen **esleipen prozeduran**, Txuri Urdin jauregian makina gela zaharberritu eta beste eraberritze-lan batzuen espedienteko sorta baten esleipena 194.083 euroan eta 9 zerbitzuren kontratazioa guztira 1,9 milioi euroan publikotasun eta lehia printzipioak urratuta egin ziren; emakiden **luzapenean**, errepideko bidaiarien garraio publikoko zazpi ohiko zerbitzuren emakidadunek, emakida epeak 2006 eta 2012 bitartean iraungi ziren arren, zerbitzua ematen jarraitzen dute, 2014an 21,8 milioi euroren gastua izan zuelarik; eta azkenik, kontratu baten **aldaketetan**, Tolosa, Villabona, Errekalde, Ibaeta eta Donostiako erdigunearen arteko bidaiarien garraio zuzena egiteko kontratuak, 2013ko uztailean esleitu zenak, zenbait aldaketa izan ditu eta kostua % 171 igo da; horrek hasiera batean izenpetutako kontratua desitxuratzen du.

Horrezaz guzti horrezaz gain, Diputatuen Kontseiluak 12 onuraduni diru-laguntza zuzenak eman zizkien guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan, interes publiko, sozial, ekonomiko edo gizabidezko arrazoiak edota deialdi publikoa deitzea zailtzen duten behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiak daudela egiaztatu gabe.